



BASKONIA Mendi Taldea

C/Doctor Fleming, nº 2, Bajo; 48970-Basauri

Tlfo.: 94.449.57.28


e-mail: baskoniamt@gmail.com

página web: www.baskoniamt.com



Teléfono de Excursiones / Bidaien Telefonoa: **688.81.05.79** 

Operativo desde 1 hora antes de la salida hasta 1 hora después de la vuelta / Irteeraren lehenengo ordu batetik itzuliaren ondoren ordu bat arte baino ez da operatiboa

Pagos / Ordainketak: CAJA LABORAL / EUSKADIKO KUTXA: **ES22-3035-0207-12-2071021535** 


EKAINAK 2

ZEHARKALDIA: ARANGAS-TURBINA-ALLES

1)-Salida de Bilbao/Irteera Bilbotik (Abando, Begoña)	05:30 horas
2)-Salida de San Miguel de Basauri /Irteera San Migeletik	05:45 horas
3)-Salida de Basauri /Irteera Basauritik (Miradores, Ariz)	06:00 horas

- Basauri - Arangas: 3,00 h.
- Unqueran geldialdia, gosaltzeko
- Basaurira heldu: 20:00-21:00 bitartean.

Ordutegiak eta ibilbideak aldatu edota bertan behera geratu ahalko dira, bai eguraldia dela-eta, bai irteeraren arduradunak hala erabakitzen badu.



Distantzia = **15,3 km**

Desnibel positiboa = **1200 m**

Zailtasuna = **Neurritsua**


Aurreikusitako denbora = **6,30 h**

Ibilbidea:

Asturias ekialdean, eta kostaldetik oso hurbil, Cuera mendilerroa dago. Llanes eta Ribadedeva kostaldeko kontzejuak bereizten ditu barrualdeko Cabrales eta Peñamellera Altatik. Turbina da hango tontorrik garaiena (1.315 m).

Arangas herrian ekingo diogu bideari (350 m). Arenas de Cabrales gainean dago. Eliza ondotik irteten da bidea, hagin ikusgarri baten ondotik, eta Lodevega saroiraino doa, apurka-apurka. Xendra txikietatik jarraitu, eta Trebes mendi-lepora iritsiko gara. Govio kanaletik igotzen jarraituko dugu —kanala baino, mendi-magal zabala da—, eta Portilla de Govio delakora helduko gara, mendilerroaren goialdera. Bailara txikiek eta sakonunek osatutako gunea da. Bordak ere badaude (batzuk, erortzeko zorian), Sakonunek ekiditen saiatuko gara. Gutxi definitutako bidexketatik jarraituko dugu, iparrerantz. Laster, Turbina agertuko zaigu. Hura ardatz hartuta, igotzen jarraituko dugu, bide egokienetik, ahal bada (dena dela, mugarriek bidea markatuko digute). Tontorretik ikuspegi paregabea dago: iparraldean, Kantauri Itsasoa, Lastresetik San Vicente de la Barqueraraino (eta, tartean, kostaldeko herrixka mordoa eta Llanes); hegoaldean, Picos de Europa mendilerroa, oso-osorik; ekialdean, Haba tontorra eta ekialdeko Cuera zati handi bat; eta mendebaldean, Peña Blanca, Bubena eta mendebaldeko Cuera osoa.

Tontorraz eta ikuspegi paregabeaz gozatu eta gero, itzultzen hasiko gara, hegoalderantz. Gero, ekialdera egingo dugu, eta harrizko zuloak eta landak zeharkatuko ditugu, Braña de Mancornuraino. Apur bat aurrerago, Braña de Jorá dago, eta, handik, ia-ia ezkutuan dagoen bidezidor batetik, sigi-saga jaisten hasiko gara, behean ikusiko dugun pista bateraino, eta, handik, ibilbide amaieraraino iritsiko gara (eguna zelan dagoen, Ruenesen ala Allesen izango da).









© 2018 Google

Image Landsat / Copernicus
Data SIO, NOAA, U.S. Navy, NGA, GEBCO

Google Earth